

Donostian, bildu dira: I. M.^a Etxaide, buru, Irigaray, Gorostiaga, Villasante, Oleaga, Lekuona, Mitxelena, ta Lojendio jaun euskaltzaiñak. Zugasti, Aita Larrañaga, Irigoyen, Loidi ta Etxaniz jaun urgazleak.

Aurreko agiria irakurri ta onetsia da.

Mme-Jaureguiberry andra urgazlearen karta bat irakurri da eta Zuberoako barri emoten dau eskolako arazoa ukaturik. Oso begi onez ikusten da egiten ari dan lana.

Irigaray jaunak Arbizu-n "príncipe de Viana"-koak gertau daben jaialdiaren barri emoten dau. Oso begi onez ikusten da Nafarroan umeen artean egiten ari direan lan bikaiña. Esaten dau zelan *Herria* astekariaren batzarre batean bera egon zan eta zelan asmo barriak dabezan astekaria obetzeko eta geiago zabaltzeko. Oso ondo egiña da astekari au ta gaiñera asko ta asko dago Frantzia alderdiko euskaldunak zeatz eta meatz irakurten dabena, baina Amerikan ta Algerian dagozan euskaldunak bere. Espaiñiako alderdian bere oso bearrezkoa litzake olango bat, ondo egiña ta joera zabalekoa. Oso begi onakaz ikusten dau Euskaltzaindiak norbaitzuk orretan dabela gogoa.

Aita Villasante-k diño Arantzazun biren artean ari direala euskeraz ikasteko metodo bat egiten.

Mitxelena jaunak diño Euskaltzaindiak zimentarri batzuk ifiñi bear leukezala literaturazko izkuntzari ta itzeri jagokiezanak. Adibidez, zeintzuk direan euskerazkotzat euki bear doguzan itzak eta zelango arrazoiak egon bear daben ontzat artzoko. Ain zuzen bere gente asko Euskaltzaindiak diñoanari begira dago eta gura leuke onek zerbait esan daien.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.